


**ARARTEKO ERAKUNDEA**  
**2017. URTERAKO AURREKONTUAREN AURREPROIEKTUA**

**TXOSTENA**

Hona hemen Ararteko erakundeak 2017. urterako prestatu duen aurrekontuaren aurreproiektua, Eusko Legebiltzarraren Araudi eta Gobernurako Batzordeak horren berri izan dezan eta, ondoren, bere onespena eman diezaion. Gastuak eta diru-sarrerak berdinduz, guztira **LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA HOGEITA HAMAZORTZI MILA EUROKOA (4.538.000,00)** da.

Beraz, %0,42 murriztu da iazkoaren aldean.

Jakina denez, ekonomia-sistemaren krisia oraindik ere larriki eragiten ari zaio botere eta administrazio publikoen finantzaketari, eta Europako eta Euskadiko agintari politikoek erabakiek gastu publikoa murriztera behartzen gaituzte. Ararteko erakundea hori lortzeko ahalegin itzela egiten ari da 2009ko aurrekontu ekitaldiaz geroztik, eta aurtengo ekitaldirako beste aurrekontu murrizketa bat egitea pentsatu da. 2009tik 2017ra, erakundearen aurrekontua oro har 574.527,21 euro murriztu da, hau da, %11,24 gutxitu da (grafikoa erantsi dugu).



Aurrekontuen aurreproiektua azaltzean ohikoa denez, bertako gastuen kapitulu bakoitza azaltzen hasi aurretik, behar-beharrezkoa iruditzen zaigu aurreproiektu hori egitean oinarritzat hartu ditugun jarraibideak azaltzea, aurreko ekitaldiko aldaketarik garrantzitsuenekin batera.





Aurrekontuaren aurreproiektutik, hiru ideia nagusi nabarmendu nahi ditugu.

## 1. Gastuari eustea

Aurreko ekitaldietan bezalaxe, aurten ere gastuari eusten jarraitzen dugu, lehen adierazi dugunez, eta 2017ko aurrekontua iazkoaren aldean %0,42 murriztea proposatzen dugu.

Egindako ahalegin handi hori hobeto ikusten da erakundearen jarduera kopuruan izan den hazkuntzari erreparatzen bazaio.

Hazkuntza horretan azpimarratzekoa da, lehenik, 2016ko ekitaldian Arartekoaren jarduera %23 hazi dela (aurreko urtean baino %15 kexa gehiago).

Era berean, Haur eta Nerabeentzako Bulegoak (Eusko Jaurlaritzaren ardurapean zegoen Haurren Defentsa Bulegoaren ondorengoak) bere jarduera eta parte-hartzea areagotu ditu (adibidez, UNICEFekin burututako lankidetzajarduerak aipa daitezke, edo Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenaren bilakaera aztertzea), pertsona ahulen -hau da, neska-mutilen eta nerabeen- eskubideak defendatzea bereizgarri duen arloan.

Lan horren emaitza gisa, adingabeen interes gorena aintzat hartzen ari dira sektoreko politika publikoetan eta gure administrazioen erabaki eta jardueretan. Haur eta Nerabeentzako Bulegoa sortu zenetik, etengabe gehituz joan dira herritarrek egindako eskaerei erantzuteko jarduerak. Gainera, bulego horrek presentzia handiagoa izan du haurrak babesteko gizarte-erakundeekin elkarlanean egin diren jardueretan.

Orobat, Ararteko erakundearen jardueren artean, ehuneko kopuruei begiratuta, gizarte arloko kexak gehitu dira gehien 2016an, batez ere gai hauekin lotutakoak: diru-sarrerak bermatzeko errentaren kudeaketa, etxebizitza lortzea eta osasunerako eta hezkuntzarako eskubideak.

Beraz, Arartekoak, erakunde gisa duen betekizuna (herritarren eskaerak hartzea) kontuan hartuta, gero eta gehiago parte hartzen du krisi ekonomikoak pertsonengan eta familiengan (batez ere egoera txarrean bizi direnengan) izan dituen ondorioei konponbideak bilatzen. Horrekin batera, dezente ugaritu dira Arartekoak Euskadin gizarte-prestazioen arloan eskumena duten administrazioekin egin dituen era guztietako esku-hartzeak. Horietan, kasu bakoitzari banako erantzun egokia ematen saiatu da.



Horregatik guztiagatik, Ararteko erakundeak eskubideak eta gobernatze ona bermatzeko erakunde gisa jarduten du batik bat, eta funtsezko eginkizuna betetzen du kalitate demokratiko eta sozial hobea erdiesteko.

Krisi-egoeraren ondorioak denboran irauten ari dira, eta halaxe jarraituko dute 2017an ere. Orduan, Arartekoak eta bere lantaldeak aparteko ahalegina egin beharko dute erakundearen ustezko jarduera-gehitzeari aurre egiteko, eskura dauzkan giza baliabide eta baliabide materialak gehitu gabe.

## 2. Gardentasun arloan sakontzea

Jarduera eragingarria lortu eta Ararteko erakundearen kalitate demokratikoa bermatzeko asmoz, aurreproiektu honetan beharrezko aurreikuspenak hartu dira kontuan erakundearen gardentasun mailan sakontzeko. Horretarako, bere zerbitzuetara, bere jarduerari buruzko datuetara, erakundearen eguneroko berrietara, bere ebazpen, adierazpen, gomendio eta txostenetara sarbidea erraztu eta argituko die pertsona eta agintari guztiei. Azken finean, zehatz-mehatz azaltzen du nola erabiltzen dituen aurrekontu honek bere ardurapean jarritako baliabideak.

Behar diren partidak hornitu dira gardentasun-atarian aurrera egiteko eta herritarrei ardura zaien informazioa erraz helarazteko.

## 3. Administrazio ona

Arlo honetan, aurreko ekitaldiko ildotik dihardugu; hau da, Arartekoak Euskadiko erakunde-sarean duen kokaleku berezia baliatzen du, euskal administrazioen jardueren gaineko ikuspegi kontrastatua izateko.

Horregatik, egokia iruditzen zaigu aurrekontu-aurreikuspen horiei eustea, herritarrek egindako kexak ebatziz eskuratu dugun informazioa aztertu, sistematizatu eta egiaztatu ahal izateko, eta joera nahiz disfuntzio orokorrak antzemateko. Horrela, gomendioak, hausnartzeko foroak, herritarrekin trukea egiteko jardunaldiak eta unibertsitateekin lankidetzan aritzeko mekanismoak egitea pentsatu dugu. Aurten, Arartekoak honako hauetan hartu du parte:

- Economic and humanitarian crisis hits city neighbourhoods (Atenas, 2016ko urtarrila)
- International Association of language commissioners (urteko bilera, Galway, 2016ko martxoa)
- Giza Eskubideen egungo erronkak (Bartzelona, IOI, 2016ko apirila)



- Herriaren defendatzaileen Europako Sarearen mintegia (Brusela, 2016ko ekaina)
- Ombudsmanen Nazioarteko Federazioaren urteko bilera (Tenerifeko Santa Cruz, 2016ko iraila)

Ikuspegi horretatik begiratuta, datorren ekitaldian, Arartekoak Europako eremuan bereziki jardun jarraitzeko asmoa du. Erakundeak, Europan antzeko zeregina duten erakundeetatik informazio baliotsua eskuratzeko aukera izateaz gain, aldi berean, ikuspegi objektiboa eman dezake Euskadiko administrazioek arazo partekatuez eta guztion intereseko kontuez (gizarte zerbitzuak, hezkuntza, gizarte bazterketa...) egiten duten lanaren gainean. Horren adibide ona izan da Rainbow Has proiektua (Rights Through Alliances: Innovating and Networking Both Within Homes And Schools; "Aliantzen bidezko eskubideak: etxean eta eskolan sareak eraberrituz eta sortuz"), Europako Batzordearen Justizia Zuzendaritza Nagusiak sustatu zuena, haurrek eta nerabeek sexu-aniztasunerako duten eskubidea hezkuntza eremuan sustatzeko asmoz. Proiektu horretan Europako 8 herrialdeetako 13 erakundek hartu zuten parte, 2016an amaitu zen, arrakastaz, eta Europako Batzordearen zorion-agurra jaso zuen.

Europako foroetan modu aktiboan parte hartuz, zuzeneko informazioa eskuratu daiteke, Euskadin kalitateko administrazio eraginkorragoa, gardenagoa, irekiagoa eta arduratsuagoa lortzen lagunduko duten politika publikoak sustatzeko. Azken batean, herrialde honetako herritarrei zerbitzatzeko eginkizuna egunero bere gain hartzeko gauza izango den administrazioa sustatzeko.

Hori lortzeko, aurrean duzuen aurrekontuaren aurreproiektua baliagarria izango da erakunde honek bere jarduera egitean ikusten dituen errealitate ezberdinak, harreman eta lankidetzak sareak sakonago aztertu eta ebaluatzeko.



## GASTUEN EGOERA

### 1. KAPITULUA – LANGILEEN LANSARIAK

Kapitulu honetako kreditua guztira **HIRU MILIOI, LAUREHUN ETA BERROGEITA SEI MILA ETA HIRUREHUN EUROKOA (3.446.300,00)** da, soilik zenbait doikuntza egin ondoren; beraz, %1,36 gehitu da joan den urtekoaren aldean.

Aurrekontuan agertzen den soldata-igoera Eusko Legebiltzarraren langileentzako aurreikusita dagoena bera da, Eusko Jaurlaritzak igoera hori aintzat hartu baitu euskal administrazio orokor osorako.

Aurrekontua doitzeko orduan, ordainsariak pixkanaka egokitzen ari gara: iaz hasi zen egokitze hori, Kabineteko zuzendariaren lanpostua kenduz, eta ekitaldi honetan jarraipena eman zaio, arloko arduradunaren lanpostu bat kendu eta hori arloko teknikariaren lanpostu bihurtuz (ordainsari txikiagoa du azken horrek).

Gainerakoan, Gizarte Segurantzari dagokion partida indarreko araudiko azken aldaketetara egokituta agertzen da aurrekontuan.

### 2. KAPITULUA – ONDASUN ARRUNTEN EROSKETA ETA ZERBITZUAK

Kapitulu honetako kreditua, guztira **MILIOI BAT, HIRUROGEITA HIRU MILA ETA ZAZPIEHUN EUROKOA (1.063.700,00)** da.

Horrela, gastua %5,63 gutxitu da 2016ekoaren aldean.

Arartekoak behar bezala jarduteko ezinbestekoak diren jardueretarako gastua ahalik eta gehien murriztuz egiten dira gutxitze horiek.

### 6. KAPITULUA – EGIAZKO INBERTSIOAK

Kapitulu honetako kreditua, denera, **HOGETA ZORTZI MILA EUROKOA (28.000,00)** da. Hortaz, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, %6,67 gutxitu da.



## SARREREN EGOERA

2015. urteko superabita 52.134,12 eurokoa izan zen. Horietatik 27.000 euro 2016ko ekitaldiko aurrekontuan sartu ziren (870.00.00 partida – Diruzaintzako soberakinak sartzea) kreditua gehitzeko 2/2016 Planaren bitartez, zeina Eusko Legebiltzarraren Diputazio Iraunkorrek onartu zuen 2016ko irailaren 7an. Beraz, geratzen diren **25.134,12 euro** horiek sarrera gisa gehituko dira Ararteko erakundearen 2017ko aurrekontuan, 4. kapituluan –Transferentzia Arruntak–, 411.01.00 partidan –Aurreko urteetako superabita–.

Gure ustez, kapitalak ematen dituen korrituengatik 300,68 euroko ondare-sarrerak izango ditugu, aurrerakin itzulgarriak bihurtzean 4.300,20 euro jasotzea espero dugu eta beste argitalpen batzuen partidan, berriz, 100,00 euro. Hori kontuan izanik, sarreraren aurrekontua eta gastuena berdinduko bada, Eusko Legebiltzarrak honako kopuru hau transferitu behar du Ararteko erakundearen alde: **LAU MILIOI, BOSTEHUN ETA ZORTZI MILA, EHUN ETA HIRUROGEITA BOST EURO (4.508.165,00).**

Manuel Lezertua Rodríguez  
Arartekoa

Vitoria-Gasteiz, 2017ko otsailaren 1a

